


**Hautaprobetako ariketak (2003 – Uztaila):  
PNEUMATIKA**

**2 ATALA: SISTEMA PNEUMATIKO ETA OLIOHIDRAULIKOAK ETA SISTEMA AUTOMATIKOAK: KONTROLA ETA ERREGULAZIOA.**

**B aukera:** (Ariketa bi ditu)








**I-B** Irudiko eskema pneumatikoan, zera egin behar da:



- a) Identifikatu osagai bakoitza eta idatzi bere izena zerrenda batean. (0,5 puntu)
- b) Azaldu instalazioaren oinarritzko funtzionamendua. (1,5 puntu)
- c) Adierazi era grafikoan zilindroaren higidura-diagrama. (1 puntu)
- d) Azaldu arrazoiak emanez, noranzko bakarreko erreguladore bietariko zineek zaintzen duen zurtoinarene sarrera-abiadura. (1 puntu)
- e) Zelan jokatu daiteke zurtoina ez sartzeko ezta irteteko ere 1.1 balbula jardutean? (1 puntu)


## EBAZPENA

### a) Identifikatu eta izendatu

Identifikazioa	Izena
	Aire konprimatuaren iturria
	3/2 NI balbula (banaketa-balbula). Aginte eta itzulera: eskuz.
	FRL mantenimendu-unitatea
	3/2 NI balbula. Agintea: pultsadorea. Itzulera: malgukia.
	Isilgailua
	Noranzko bakarreko erreguladoreak
	Efektu bakarreko zilindroa.


### b) Oinarrizko funtzionamendua

Zurtoina ateratzeko, 0.1 eta 1.1 balbulak sakatu behar dira.




Zurtoina astiro ateratzen da, 1.02 balbulak emaria erregulatzen duelako.

1.1 pultsadorea askatzen denean, balbula hasierako lan-posizioa itzultzen da eta zurtoina astiro sartzen da.



**c) Zilindroaren higidura-diagrama**

Hasieran zurtoina sarturik dago. 1.1 balbula sakatzen denean (0.1 balbula ere sakatuta, zirkuituan aire konprimatua sartzeko) zurtoina pixkanaka aterako da. Aterata jarraituko du 1.1 pultsadorea askatu arte. Askatzen denean, zurtoina pixkanaka sartzen joango da.



**d) Zeinek zaintzen duen zurtoinarene sarrera-abiadura**

1.02 balbulak zurtoina pixkanaka ateratzea kontrolatzen du eta 1.01 balbulak pixkanaka sartzea.

### **e) Zurtoina ez sartzeko ezta ateratzeko ere**

1.1 balbula jardutean zurtoinak lanik ez egiteko dagoen metodo sinpleena zirkuituan aire konprimaturik ez sartzea da; hau da, 0.1 balbulari hasierako lan-posiziora itzultzea, eskuzko aginteren bitartez.